

Biztanleen udal-eroldan datuak aldatzea - Informazio orokorra

▪ Zertarako

Biztanleen udal-eroldan datuak aldatzeko eskabidea

▪ Ekarri behar diren agiriak (tramitazio presentziala):

Ekarri behar diren ziurtagiriak (jatorrizkoa eta fotokopia):

- Kasu guztietan ekarri beharrekoa: NA edo AIZ
- NA edo AIZ bidez egiaztatzen diren okerrak aldatzea: NA edo AIZ bera
- Beste datu batzuk egiaztatzea:
 - Jaiotza: familia liburua
 - Dibortzioa edo banaketa: auzitegiko epaia
 - Heriotza: heriotza ziurtagiria edo familia liburua
 - Izen-deituren aldaketak: epaitegiak emandako egiaztagiria

Unitate arduradunak eskubidea du beste dokumentu osagarriren bat eskatzeko, izapidea behar bezala bete ahal izateko.

▪ Lege-Arautegia

Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, apirilaren 2ko 7/1985 Legea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena) aldatzen duena, Udal Erroldari dagokion atalean.

Abenduaren 20ko 2612/1996 Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua aldatzen duena.

▪ Oharrak

Europar Batasunetik kanpoko atzeritarrak:

- Behin betiko egoitza-baimenik ez badute, Erroldaren inskripzioa bi urtean behin berritu beharko dute.
- Horrela egin ezean, inskripzioa iraungizat joko da (Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.1 artikulua, 2. paragrafoa)